



Erantzunak: 1.- Lanpara dago sobran. 2.- a-2, b-3, c-4 eta d-1. 5.- 1-E, 2-F, 3-D, 4-C, 5-B eta 6-A.

Denbora-

1 Zer dago sobran?

Udako oporretan ateratako argazkiak txukuntzen aritu da Josu. Argazki bat lekuz kanpo dago, ordea. Zein?





2 Moztu eta osatu

Ordulari berri bat erosi aurretik, argazkiei begira aritu da Julen. Argazkiak bitan zatitu ditugu. Lotu ordulari bakoitzaren bi zatiak.

3 Kopiatu laukiz lauki

Urtebetetzea ospatzeko, txokolate goxo-goxoa prestatu die Nagorek lagunei. Askariko marrazki hau kopiatuko al zenuke?



- pasak



laudorio burutazio
ekarpen lorazain
mahats erle
gerezi liburu

4 Hizki salda

Prestatutako salda etengabe nahasten ari da Graziana. Ez da harritzekoa, beraz, hizki guztiak zorabiatzea. **Bilatu lapikoko hitzak!**

5 Hitzak atzekoz aurrera

Paperezko hizkiekin jolasean ari ziren, baina haizea altxatu da, eta guztiak hegan eraman ditu. **Bilatu ezkerreko hitzak eskuineko zutabean!**

1	itzal	a	osoruxti
2	izurde	b	rahebze
3	labezomorro	c	arratig
4	gitarra	d	orromozebal
5	ezbehar	e	lazti
6	itxuroso	f	edruzi

jolasa

Salto zulora!

Igerilekura salto egitea ez da zaila. Gauzak pixka bat korapilatzen dira flota gailuaren barruko zulora salto egin behar denean. Ea, saiatu!

1. Bi jokalarik igerileku barrura sartuko dira. Ura bularraren parera iritsiko zaie, gutxi gorabehera. Igerilekuaren ertzetik metro bateko distantziara jarriko dira.
2. Flota gailu handi bat botako dute uretara. Uretan dauden bi jokalariren artean eutsiko dute flota gailua.
3. Igerilekutik kanpora dauden jokalarien txanda iritsi da. Flota gailuaren barrura egin beharko dute salto, buruz edo zutik. Jolasean hasi aurretik zehaztu beharko da saltoa nola egingo den.
4. Flota gailuaren barrura sartzea lortzen ez duen jokalaria kanporatua geratuko da. Jokalari guztiak salto egin ostean, beste partida bat hasiko da. Oraingo honetan, baina, flota gailua urrunxeago jarri beharko dute.

